

ETAren desegitea: urrats Oteizarra?

Joxerramon Bengoetxea

ehuGune, 2017-06-07

Sarrera

ETAren armagabetzea gauzatuta, hiru dira orain euskal gizartean bakearen/bizikidetzaren/trantsiziozko justiziaren inguruan nagusituko diren galderak edo gakoak. Hona, hurrenkerarik gabe: pertsonak – biktimak eta presoak – erakundearen desagertzea, eta memoria edo gertatutakoaren kontakizunak. Testu honetan, gai horietako bi, memoria eta ETAren desegitea, arrazoi praktikotik aztertuko dira. Arrazoi edo filosofia praktikoa “zer egin?” galderari erantzuten dio, arauen eta baloreen arloan mugitzen da. Arrazoi praktikoa adar nagusiak honakoak dira, zuzenbidea, politika, morala edo etika, taldeko zein norbanakoen etika. Estetika ere bada filosofia praktikoa arlo garrantzitsu bat, eta idazki honetan helduko diogu. ETAren gaia arrazoi praktikotik aztertzeari ekin baino lehen, ETAren existentzia bera aztertzea beharrezkoa da. Nolako izaera dauka edo eduki du ETAk? existentzia politiko-sozialik, existentzia juridikorik? Hona gure behin-behinekoo erantzuna: ETA euskal eta espainiar errealitate sozio-politikoaren pisuzko fenomeno izan da, baina, formalki, ez du inoiz existentzia juridikorik izan. Nola liteke?

Errealitate soziala eta errealitate juridikoa: erakundeak

Errealitate sozialean instituzio sozialak eratzen dira, arau sozialak jarraituta, baina formaltasun juridikorik bete gabe. Instituzio edo erakunde sozialek ez dute zertan zuzenbidean existentzia formalik eduki behar, errealitate sozialaren elementuak dira, taldeak dira. Batzutan instituzio horiek existentzia, bai sozio-politikoa eta baita juridikoa ere, izaten dute; adibidez, ezkontza, familia, alderdi politikoa, eliza ... Beste kasu batzuetan, instituzio sozialek errealitate soziala dute, baina ez juridikoa. Gure errealitate soziala horrelako kasu erruz ditu: koadrilak, lagun taldeak, erroldatzen ez diren “egitatezko” bikoteak, irakurketa zirkuluak, mendizale-talde informalak, ... Zentzu berean, badira zuzenbidean existitzen diren instituzioak, baina bizitza sozialean inolako presentziarik izan gabe. Hona adibide bat, iruzur fiskalen kasuetan ohikoa izaten dena: konpainien eta beste motatako akziodunen artean elkarte berri bat, bigarren, hirugarren edo enegarren mailakoa, erroldatzen dutenean. Legalki erroldatuta dauden unetik, existentzia juridikoa dute, baina sozialki ez dute existitzen. Errealitate sozialean sortzen diren erakunde edo taldeak helburu desberdinak eduki ditzakete: elkartasuna, laguntza, balore batzuk sustatzea, jarduera ekonomikoa, ... eta ohikoan elkarlanaren tresna sozialak erabiltzen dituzte. Baina talde sozialak ez dira beti helburu duinetarako eratzen, edota ez dute beti auzolanaren tresnak erabiltzen. Izaki sozial hauek txarrerako ere sor

daitezke, lapurretarako, iruzurretarako, edo legez-kontrako tresnak eta metodoak erabiltzen dituzte, iraultza egiteko taldeak kasu ... Hauen artean kokatzen da ETA. Erakunde sozio-politiko (izan) da baina ez da inoiz legearen arabera eratu, ez dauka existentzia juridikorik, ez du inoiz izan. Zuzenbidearen ikuspegitik ezin du izan: Esp. Konst 22(2): “las asociaciones que persigan fines o utilicen medios tipificados como delito son ilegales” eta 22(5) “se prohíben las asociaciones secretas y las de carácter paramilitar”.

ETA “erakunde” armatua eta horren adarrak ez ziren inoiz legearen arabera eratu, baina talde terroristatzat edo “banda armada” edo “association de malfaiteurs” gisa definitua izan da Espainiako edo Frantziako zuzenbideetan, edo talde terrorista, Europar zuzenbidearen arabera¹. ETAkidei delituak egozten zaizkie erakundearen existentzia frogatu gabe, baina existentzia hau erabat asumituz. “Kidetza” bera, *pertenencia*, delituak dira, eta zigortzen dira baina fikzioak dira: formalki ez badago ETArrik, kidetza bera fikzio juridikoa izango da. Ez dago ETAREN karnetik, ez dago kideen zerrendarik, ez dago ordezkartzarik, ez dago jabegorik. Helere ezin zaio existentzia sozio-politiko ukatu. Horrek ez du ezertan kentzen Errealitate soziala daukaten fenomenoak zuzenbidetik, zigor zuzenbidetik bereziki, arautu ahal izatea. Iruzur sareak, eroskeria eta ustelkeria sareak, edo talde terroristak, dakigun bezala, oso zorrozki araututa eta zigortuta daude. Paradoxikoa da erakunde ilegalek zuzenbide penalean jasotzen duten tipifikazioa; existentzia soziala ukazina duten bitartean ez dute existentzia, edo nortasun juridikorik. Zuzenbide penalean, zigor kodean,

1 Ikus 2002/475/JAI, Erabaki-markoa, Artículo 2 “Delitos relativos a un grupo terrorista

1. A efectos de la presente Decisión marco, se entenderá por "grupo terrorista" toda organización estructurada de más de dos personas, establecida durante cierto período de tiempo, que actúa de manera concertada con el fin de cometer delitos de terrorismo. Por "organización estructurada" se entenderá una organización no formada fortuitamente para la comisión inmediata de un delito y en la que no necesariamente se ha asignado a sus miembros funciones formalmente definidas ni hay continuidad en la condición de miembro o una estructura desarrollada.

2. Todos los Estados miembros adoptarán las medidas necesarias para tipificar como delitos los actos intencionales siguientes:

a) dirección de un grupo terrorista;

b) participación en las actividades de un grupo terrorista, incluido el suministro de información o medios materiales, o mediante cualquier forma de financiación de sus actividades, con conocimiento de que esa participación contribuirá a las actividades delictivas del grupo terrorista.”

Espainiako Zuzenbidean Kode Penaleko 515 artikuluan arautzen da: Son punibles las asociaciones ilícitas, teniendo tal consideración:

1.º Las que tengan por objeto cometer algún delito o, después de constituidas, promuevan su comisión.

2.º Las que, aun teniendo por objeto un fin lícito, empleen medios violentos o de alteración o control de la personalidad para su consecución.

3.º Las organizaciones de carácter paramilitar.

4.º Las que fomenten, promuevan o inciten directa o indirectamente al odio, hostilidad, discriminación o violencia contra personas, grupos o asociaciones por razón de su ideología, religión o creencias, la pertenencia de sus miembros o de alguno de ellos a una etnia, raza o nación, su sexo, orientación sexual, situación familiar, enfermedad o discapacidad.

Baita 571. artikuluan: Artículo 571. : “A los efectos de este Código se considerarán organizaciones o grupos terroristas aquellas agrupaciones que, reuniendo las características respectivamente establecidas en el párrafo segundo del apartado 1 del artículo 570 bis y en el párrafo segundo del apartado 1 del artículo 570 ter, tengan por finalidad o por objeto la comisión de alguno de los delitos tipificados en la sección siguiente.” (delitos de terrorismo)

legez kanpo eta legez kontra dagoen erakunde baten kidetza oso zorrozki zigortuta dago delitu gisa, baina ez oso zehazki edo prezeski arautua. Zer esanik ez, legez kontra dagoen talde baten zuzendaritza, edo horren aginduetara egotea, edo horri aginduak ematearen delituak. Kasu horietan, “erakunde estalkia”rena da merkatal zuzenbideak erabiltzen duen irudia, eta zuzenbide penalean ere antzeko fikzio juridikoa egiten da. Baina lanbrotsua da, oso. Existentzia soziologikoa arautzen da, formaltasun juridikoan erreparatu gabe. ETAREN kasuan garbi dago ez dela legezko edo zuzenbidearen araberrako elkarterik izan, baina ETA bera MLNV/NAEM barruan kokatu da beste erakunde askorekin batera, eta erakunde horiek izaera juridikoa izan dute kasu askotan². Sare horrek existentzia sozio-politikoa izan du, eta agian, oraindik ere badu, baina ez juridikoa.

Posible al da ETA des-eratzeta?

ETAREN desagiteaz hitzegiten da, gizartetik disoluzioa eskatzen zaio ETARI, aspaldi gainera. Baina, formalki eratu ez dena ezin da formalki amaitu edo des-eratu. Eta horrek galdera sortzen du: nola desegin daiteke formalki eratu ez dena? Gizarte mailan, izari soziologiko informalean posible litzateke des-eratzeta, eta aztertu eta eztabaidatu beharko litzateke desagite sozial hori nola gauzatu daitekeen. Aukera ezberdinak leudeke: mass medioetan hedatutako komunikatu baten bitartez, bilera bitariko edo askotariko batean desagite hori eszenifikatuz, ETAKIDE presoan adierazpen batez, ... Behar bada gako honi ez zaio orain arte behar bezala heldu. Eta honen inguruan gorabeherak egon daitezke: nori ziurtarazten du deseratu egin dela? Estatuak? Notario batek? Gizarte zibilak? Erakunderen batek? Nazioarteko tartelari talderen batek? Edozein kasutan argi dagoena da ezin zaiola ETARI juridikoki des-eratzeko eskatu. Trantsiziozko justiziaren terminologia erabiliz DDR hirukiaz hitzegiten da: desarmatzea, desmobilizazioa eta reintegrazioa. Desmobilizazioa da desagitearengandik gertuen dagoen kontzeptua. Taldea mobilizatuta balitz, errexago ulertuko zen desmobilizatzea. Baina 2011n ekintza armatuari utzi – behin betiko sutenena – eta 2017n desarmatu zenetik “desmobilizatuta” egon da faktikoki. Desagitea zerbait desberdina litzateke? Ekintzari utzi, dituen armak eman, baina Izateari utzi? Sinesgarritasuna dago kolokan. Borroka armatuari utzi zionetik, ahotsak entzun ziren esanez tranpa-sutenena zela, baina ez da izan. Armagabetze gertatu zenean, beste ahots batzuk – edo bereberak – entzun ziren esanez ez zela arsenal osoa entregatu nahiz eta nazioarteko tartelarien taldeak horrela onetsi. Urrengo urratsean ETAK desagiten dela aldarrikatzen badu, ahotsak entzungo dira esanez ez dela egia. Formalki ezin denez ezer frogatu, ikusi egin beharko da ia aldarrikapen hori nola bistarazten den, sinesgarritasuna nola ematen zaion: baina ekintzarik egin ez izana, armak entregatu izana oso datu garrantzitsuak dira. Des-kidetzea eta desagitea beste binomio bitxia da: kideak izan direnak ez lirateke ezeren kide

2 HB, ANV, Ehok,PCTV,... Askapena, Gestoras, LAB, Jarrai, Segi,Bilguna Feminista, Egizan, EHE, Senideak, etab. MLNVren inguruan ikus Iñigo Bullain, *Revolucionarismo Patriótico. El Movimiento Vasco de Liberación Nacional. Origen, ideología, estrategia y organización*, Tecnos, Madrid, 2011, batez ere V. kap

gehiago izango. Kide ohiak.

Beraz ETAREN desagitearen azterketa juridikoari dagokionez, esan dezagun, ezin dela ohiko modu formalean frogatu. *Herri Batasuna* edo *Batasuna* alderdiak alderdien legea aplikatuz auzitegiek disolbitu egin zituzten, eta desagiteko erabaki horiek Europar Giza Eskubideen Auzitegiak ontzat jo zituen. Juridikoki desagertu ziren, baina, behar bada, sozio-politikoki ez ziren desagertu. Handik urte batzuetara *Sortu* eratu zen, legez, eta ordudanik existentzia juridikoa dauka. *Egin* edo *Egunkaria* kazetak ere erabaki judizialek desegin zuten, ordura arte enpresa gisa existentzia juridikoa zutelarik (enpresen merkatal erroldan sartuta) eta handik gutxira *Gara* eta *Berrria* enpresak eratu ziren. Kasu horiek guztiak formaltasunetik eraturako erakundeak ziren, eta deseratzea kontu formal juridikoa zen. Baina ETAK ez du inoiz existentzia juridikorik izan, ez da inoiz formalki eratu eta ezin da formalki des-eratu. Jakina, gaizkile taldeak ez dira formalki eratzen, ezin delako legearen kontra doan erakunderik erroldatu. Baina horrek ez du kentzen zuzenbide penalak erakunde horien kidetza, eta erakunde horren izenean egiten diren ekintzak, juridikoki zigortzerik. Zuzenbidetik ekintza horiek delitu gisa definitzen ditu eta zigorra atsekitzen dizkie. Zuzenbideak ETAREN existentzia sozialaren balorapen normatiboa ezkorra egiten du, kidetza soila zigortuz.

ETAREN JARDUNAREN BALORAPENA: ETIKA VERSUS POLITIKA

ETAREN jarduera biolentzia arrazoi praktikotik ere aztertzea dago, ez bakarrik zuzenbide penaletik. Balorapen etiko-politikoa egitea dago. Hauxe izango da euskal gizartean eztabaida nagusietako bat, hurrengo urteetan: errelatoa, narrazioa, kontakizuna. Hasieran esan dugun bezala, zuzenbideaz gain, etika eta politika dira ETA erakundearen jardura aztergai duten filosofia praktikokoaren arloak. Diskurtso etikotik ETAREN jarduna, bai indibiduala eta bai kolektiboa, deitoragarri suertatzen da. Ia ezinezkoa da ETAREN biolentzia moralitasunaren ikuspegitik bidezkoetako duen diskurtso aurkitzea. ETAZALE (izan) direnek ere erakundearen ekintzen azterketa morala baztertu edo saihestu egin dute, ia beti. Ekintzak “gatazka”ren magman xurgatuta geratzen dira. Ebaluaketa morala “burgesa” omen zen, erlijioso, indibiduala eta alienatua, baina borroka herriarena da, eta horrek azterketa morala baztertu eta diskurtso politikari heltzea eskatzen zuen: iraultza ezin zen moralaren laberintoan galdu. Gaurregun ere, ezker abertzaletik ETAK egindakoaren balorapen moralari eta deitoratzeari uko egiten zaio. Azterketa politikotik heldu izan zaio biolentziaren bidezkoetasunari, eta batez ere eskema funtzionalista edo pragmatikotik aztertzen zen: borroka armatuak balio al du berezko dituen helburuak lortzeko?³ Nazio askapenerako mugimenduen diskurtsoak eta hauei

3 Bide batez, oinohar hau tartekidetasunetik idatzia, justizia penalaren sistematik balorapen etikoari uko egiten zaio, kalifikazio juridikoa nahikoa balitz bezala. Halanola, presoak lehen graduan mugitu gabe edukitzea, espetxeratzeko baldintzak epaitugabeko atxilotuei aplikatuz behin-behinekotasun luzeak, urrutze politika, haurra duten ama presoek urrutzeak, horrelako neurriak ez dira azterketa etikotik arakutzen, justuak, tajuzkoak al dira? Bidezko(tu)ak al dira? Normalean azterketa politiko funtzionaletik egiten dira: presoak bere testuingurutik ateratzea,

buruzko lanak erruz dira eta enaiz orain honekin luzatuko⁴. Gako honek, alegia etika versus politika, luzerako jotzen du eta funtsezkoa da, benetan.

ETAren baloraztapen etiko-estetikoa

Baina ETAren jarduna eta existentzia aztertzeke orduan, badago filosofia praktikoaren beste arlo bat, oso gutxitan erabilia, estetika hain zuzen ere. Forma ederrak, proportzioak, artea sortzeko funtsak eta horrelako interesak ditu estetikak. Gure euskal historia garaikidean, Joseba Zulaikaren *That Old Bilbao Moon* 2014.ko liburuak ederki asko azaldu duen bezala, Jorge Oteizaren teoria estetikoak eragin handia izan zuen diktadura garaian euskal banguardia kulturean eta ETAkide askorengan, nagusiki Txabi Etxebarrietan. *Quosque Tandem* galdera, gurean, enblematikoa izan da, eta liburu hori aktibisten eta euskal banguardiazaleen *mesanotxetan* omen zegoen. Tunelaren gogoetak ere adierazgarriak izan ziren. Tunel batean ibili ziren asko, kaltegile zein biktima, noiz arte, noiz eta nola irten jakin gabe, alegia, *Quosque Tandem* Tunelean?

Oteizak erakutsitakoa gunearen desokupazioaren ideia da. Artearen edertasuna espazioak askatzean legoke, *une* eta *gune* berriak sortuz, askatasunerako arnagune ederrak irudikatuz. Huts-Una da forma daukana, eta itxura hori materiaren plano desberdinek marrazten dute; marrazten doaz: materia hustuz, gorputzak hustuz, dauden gune hutsak, eta espazio mugagabeak planoen bitartez mugatuz, frontoietan bezala, edo harriekin markatuz, mairubaratzetan bezala.

Quosque “cabecera” liburu izango zen, baina ETARI Oteizaren ideiak asimilatu edo bereganatzea denbora luzea eta isfortzu handia kostatu zaio. Urteak eta urteak eman baititu guneak betetzen, espazioak bortizki okupatzen, agoran izua ezartzen, materia suntsitzen, kalteak sortzen, pertsonen bizitzak akabatzen, pertsonak zuloetan bahitzen, zuloak armaz betetzen, bere presentzia inposatzen, pertsonen askatasun eremuak inbaditzen, mehatxuen bidez, ekintza armatuaz, txikizioaz, sarraskiaz, *bullying* eta estortsioaz, etsaiarekiko gorrotozko diskurtsoak eginez, beti bere iruditegi bortitza. Zuloak armaz bete zituen, gero arma eta lehergailuekin gune publikoak eta pribatuak suntsituz, pertsonen kalte sendaezinak sortuz.

ETAren tunela

Klandestinidatean eratu zen ETA. Frankismoaren amaiera azkenean iritsi zenean, presoek, Amnistia legearekin, etxerako trena hartu zuten, baina trenak tuneletik jarraitu zuen eta *Konstituzio* edota *Gernikako Estatutu* geltokietatik gelditu gabe igaro zen. ETAK bere ekintzekin jarraitzea

bere familiarik, bere herritik, presoak ordu luzeak egin ditzala bakardatean, bisitak ere murriztu, baldintzak gogortu, urrundu eta sakabanatu, azkenean preso bera pertsona bezala disziplintzeko, oldartzeko, apaltzeko.

4 EHUko Iñigo Bullain-ek (ehuGunekeo adiskide) oso modu argian azaldu du ideologia hori Revolucionarismo Patriótico bere 2011ko liburuan.

erabaki zuen, “ekin eta jarrai”. Une horiek erabakiorrak izan ziren, baina amildegira jauzi egin zuen. Batzuek borroka armatua amaitzea erabaki zuten, baina 'traidoreak' bilakatu ziren. Orduz geroztik ETA eta MLNV estatu paralelo bat sortzen saiatu ziren, disziplina, dogma eta liturgia ezarriz, eta euskal gizartean bere izuarengandik aske bizi nahi genuenok *oldartzen* tematu zen. ETA biktimak etengabe sortzen joan zen, kontra gintuen gizarte osoa “helburu” ginateteke.

Asko ginen behin eta berriz desagertzeko eskatzen genionok, gehiengo isila ginen. Sekulako kaltea sortu zuten biktimengan eta gizarte osoarengan. Biktima zuzenak akabatuz, betirako zaurituz, eta biktimen senide eta urkoei alargun, umezurtz, anai-aizpa gabe betiko utziz. Eta ETAkide batzuek, agian askok, sekulako sakrifizio pertsonala egingo zuten enpeinu lazgarri hartan, euren senidei eragindako minarekin hasita, Gabriel Arestik idatzi eta Imanolek kantatu zuena, “etarren amek asko sufritzen dute ... batez ere semeek hiltzen dutenean”. Eta ETArek aurkako borrokan Estatuko justizia penalaren sistemak giza eskubideak urratu ohi zituen⁵. Horrek ere biktimak sortzen, eta oldartze estrategia batekin, legezkontrako eta salbuespen egoerako “areroiaren zuzenbide penala” ezarri zuen euskal gizartearekiko. Gizarteak ETArri gelditzeko eskatzen zion; hasierako konplizitatea galduz joan zen. Baina nola egin zezakeen atzera? Nola eman zieziokeen buelta egoerari? Nola desokupatu? Non zegoen hurrengo geltokia? *Hutsunea* geltokia hortxe bertan zeukaten, mesanotxetan, Oteizaren ideietan zegoen; hortxe egon da beti; sikiera ulertu izan balute... Batzuek – MOC, Zumalabe Fundazioa edo *Demoak* kasu – ulertu egin zuten, eta desobedientzia zibilaz gogoeta sakonari ekin zioten; dimentsio etiko-estetikoa lantzen hasi ziren. Baina, aktibistentzat “egurra” zen gakoa, gizartea oldartzea.

Urrats estetiko oteizarrak

Azkenean, urrats Oteizarra eman zuen ETAk, 2011. urtean Aieteko bake konferentziaren ostean: borroka armatuari uztea! Bat batean zelako lasaitua euskal jendartean! Askatasuna dastatzen hasi ginen, ia ia sinistu gabe, arnasa hartzen. Orain, beste urrats Oteizarra eman berri du ETAk armagabetzeko erabakiarekin, 2017ko apirilaren 8an gauzatua. Zuloak hustu ditu; armetaz desjabetu egin da. Gizarte zibilak lagundu egin dio urratsa ematen, eta “bakearen artisauak” bezalako mugimendu sozialen eskutik batik bat⁶. *Artisau* hitz honek ere, berriro ere, artea eta estetika iradokitzen digu. Desokupazioa lortzeko artea behar da; egindako sarraskia, eragindako kalte, mina eta pena sendatzeko artearen komunikazio-kodeak onuragarri dira. Estetikaren ikuspegitik armagabetzea ikur itzela izan zen, arma-zulo bakoitzaren aurrean hustutze, armagabetze ekintza estetiko bat gertatu zen.

5 Zer esanik ez, Estatuko aparatutik eratutako talde paramilitarren terrorismoak: GALEk

6 Une garrantzitsu hau ehuGunen 2017ko ekainaren 7an aztertu dugu, Bizkaia Aretoan, “artisauen” gizarte zibilaren eta euskal erakundeen ekarpena aztertu dugularik

Hurrengo urratsa aurki ematea espero dugu: bere burua des-eratztea. Ez legalki, azaldu dugun bezala hori definizioz ezinezkoa delako, baina bai gizartean, gizarte zibilaren aurrean des-egitea. Hutsune estetiko hori behar dugu: frontoi irekien edo mairu baratzen espazio libre hutsa; une askea eta tarte zabala; arnas egiteko aukera berriak; gure espazio edo gune sozialetik betiko joatea, *agora* gizartearen eskuetan uztea, benetan gure esku egoteko. Azkenean, ETAk *Quosque Tandem* ulertu egin duela dirudi. Lehenbiziko urratsa: betiko suetena, bigarrena, armagabetzea, eta ia ildo beretik jarraitzen duen eta hirugarren urratsa ematen duen, bere burua erabat hustuz, des-eratzuz. Bere materia eta armak hustuz, ETAk denbora berria sortuko du. Hutsunea *une* berri bat da, hustutako espazioak denbora arintzea dakar.

Urrats gehiago

Metafora estetiko-metafisikoarekin jarraitzeko, euskal gizarteak hustutzearen zirkulua ixten lortu behar du. Baina beste aktore bat egon da bizikidetzaren gunea eta agora den espazioa bortizki okupatzen: estatua eta bere segurtasun indarrak, edo, ezker abertzaleak erabilitako hitzaz, *okupazio* indarrak. Pentsatu dezakegu garaia heldu dela Estatuak ere beste espazio eta gune batzuk hustutzeari buruzko eztabaidari ekiteko. Presoen gaia da. Baina honek beste gogoeta berezi bat eskatzen du. Enpeinu horretan ere “Artisauak” behar ditugu, eta artistak ere.